

HITZ-ORDENA. ERABILERA ESTRATEGIKOA

Euskaltzaindia, aspaldidanik ari da gogotsu lanean batzordeen bidez Arantzazuko bilera ospetsuan (1968) abian jarritako estrategia burutu nahian. Bilera hartan, hain zuzen ere, euskarak gizarte modernoko beharrizanei egokitu beharra nabarmentu zen. Eta hori egitean lehenbailehen jorratu behar ziren alorrak aipatu eta lanerako urratsak abian jartzea erabaki zen.

Bilera hartarako Mitxelena jaunak prestatutako txostenak aurrez aurre jarri zien bertara bildutakoei zeintzuk ziren euskarak burutu beharreko lanik nagusienak:

“Euskaltzaindiari hemen aurkezten zaizkion eskabideak honela mugatuko ditugu, errazenetik zailenera:

- a. Idazkera eta ortografia.*
- b. Antzinako euskal bitzen formak.*
- c. Hitz berrien eraketa eta bestetandik hartuen forma.*
- d. Morfologia; izena (izenordea) eta aditza.*
- e. Joskera.*

Zenbatetan, ez dugu oraindik deus egiterik, horretarako behar genituzkeen estudioak ez baititu inork egin. Beste zenbatetan berriz... (sarrera)

Euskaltzaindiak gogotsu ekin zion Mitxelenak gogoratutako zenbait alor sakontzeari eta urrats sendoak eman ditu orduan proposatutako estrategia nagusia gauzatzeko bidean.

Horrela, gaur egin nahikoa argituak eta bideratuak ditugu txosten horretan aipatzen diren arlorik nagusienak:

Batuak izan dira idazkera eta ortografia.

Jasoak ditu euskal hitzen formak. Hor dugu *Orotariko Euskal Hiztegia*

Aztertuak eta euskararen senera egokituak izan dira hitz berrien formak, dagoeneko euskara batuko zerrenda estandarizatua 33.000 hitzetik gorakoa dugula.

Morfologiako alor gehienak –izena, izenondoa, aditza-arautu ditu prestatu eta herritarren esku jarri dituen hainbat gramatika-liburuxken bidez.

Orain urrats berri bat eman nahi izan du. Hain zuzen ere, bideratzeko arlorik korapiloenetakoa jorratzeari ekin dio: joskerari. Hobeto esanda, alorra jorratzen urrats berri bat eman nahi izan du, dagoeneko argitaratua baitzuen *TESTU ANTOLATZAI-LEAK - Erabilera estrategikoa* deritzan liburuxka 2008an.

Gogoratu egin behar dugu, bestalde, Euskaltzaindiak bere jarduna Sailetan eta batzordeetan taxutua duela. Horrela, aipatu berri dugun liburuxka eta oraingo hau Jagon Saileko Corpus Batzordeak¹ prestatua izan da. Urteetako lanaren eta batzordeko zenbait kidek urteen poderioz lortutako esperientzia aberatsaren emaitza izan da. Liburuaren prestatzailea Pello Esnal jauna dugu.

Nire asmoa ez da liburuaren sintesia egitea, ezta prestatze bidean izan dituen gorabeherak argitzea ere. Aurkezpen lantxo

¹ Honako hauek osotzen dute une honetan batzordea: Burua: Andres Urrutia; Idazkaria: Paskual Rekalde; Kideak: Joseba Butron, Henri Duhau, Pello Esnal, Igone Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Andres Iñigo, Patxi Iñigo, Xabier Mendiguren, Patxi Uribarren

EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Corpus Batzordea

Hitz-ordena

Erabilera estrategikoa



EUSKALTZAINDIA

honetan beste ezerean gainera gogoratu nahi dut euskaldunok badugula aurrera begira bide berriak urratzera bultzatzen gaituen tresna.

Izan ere, euskaraz idazten ibili gareno behin baino sarriago sortu izan zaizkigu barnean zalantzak gure joskerari buruz. Inguruko erdaren eragina hain handia izanik behin baino gehiagotan uste izan dugu aparteko ahalegina egin behar genuela hizkuntza horien morrontzatik geure buruak askatzeko. Horrek, baina, inoiz hizkuntzaren lehen helburua ahaztera ere eramán gaitu, egin-eginean ere idazlearen eta irakurlearen artean komunikazio erraza egitea dela.

Inor gutxi izango da zehaztasunaren eta ulergarritasunaren arteko oreka lortu ezinda ibili ez denik. Sarrítan ezintasunaren zama astuna gainera kendu ezinda edo ibili izan gara. Hainbatetan galdetu diogu geure buruari, ea darabilgun euskara ulergarria, gozoa zaion hartzaileari, irakurleari. Edota zelan jokatu behar dugun, batetik erdaren morrontzan ez jausteko eta, bestetik, jariatasunez jantziriko euskara lortzeko. Honela azaltzen zuela barruko larridura hori Andu Lertxundik, aipatzen du Pello Esnalek:

“Indarrik banu, pozik aldatuko nuke euskal perpausa. Arindu esan nahi dut. Agian irauli ere esan beharko nuke. Esaldiak eramán behar ninduke ni, eta ez nik bera. Nire zerbitzuan behar luke egon, ez nuke denbora guztia zalantzaz ibili behar hizkuntza hegemonikoetako idazleak lasai peto dabiltzan bideetan. Esaldiak bizkortu, lexikoa garbitu, arin-arin ibili perpausetik perpausera, esaldien arteko loturak freskatu...” (Andu Lertxundi, *Eskarmentuaren paperak*; Alberdania, Irun-2009)

Arazo hau larriago egin zaigu azken urte hauetan, itzulpenak eta erabili beharra areagotu zaigunean. Sarrítan kanpotik datozkigun testuak euskaraz jarri beharra kalbario gogor bat izaten dugu, testu horiek luzeak izateaz gainera bihurriak ere

izaten direlako. Eta, jakina, gure hizkuntza ingurukoekin konparatuz gizarteko hainbat alorretara plazaratu berria izatean es-tu eta larri ibiltzen gara arazoari neurria hartu ezinda.

Aipatu ditudan liburu bien aurrealdeko azalaren hegaleko orrialdean, liburu horiek ez datozela ongi idazteko errezetak ematera edo ohartarazteko honako berbok ageri zaizkigu:

Euskal gramatikaz, bi uste oker eta gaizto daude gurean zabaldua: batetik arautzen duena baino gebiago arautzen duela eta, bestetik, zenbait hizkuntza baliabideren erabileran nabikoa dela arau gramatikalak betetzea.

Hemen, estrategiak ditugu gai nagusi. Eta 'estrategia' esatean, 'erabakia' diogu. Hain zuzen, erabakiak hartzera bultzatu nahi zaitugu; erabakiak hartzeko gaitasuna lantzeraz; hitz batean, zeure buruaren jabe izatera euskararen erabileran ere.

Liburuaren atzealdeko azalean beste hau irakurtzen dugu: *Hizkuntzaren erabileran eragina duten gizartearen alde guztiak biltzen ditu JAGON Sailak bai eta hiztunek bizi dituzten kultura arauak, itzaropenak eta testuingurua ere. Euskaltzaindiaren Jagon Sailak JAGON bildumak euskararen inguruko hainbat ikerketa eta saiakera hartzen ditu, hizkuntzaren erabilera praktikoa aztertu eta euskara sustatzeko eta babesteko.*

Ardura horrek eraginda, aparteko interesez bultzatu nahi izan ditu argitaratu berri duen liburuaren inguruko gogoetak. Egin-eginean ere, garrantzi handikotzat jo dituelako idazle, itzultzaile, eta irakasleentzat..

Hitz-Ordena –erabilera estrategikoa- liburuaren aurkezpena Donostian egin zen 2012ko urtarrilaren 24an. Egintza hori zela eta Felix Ibargutxi kazetariak Pello Esnal jaunari egindako elkarrizketan, liburuaren muina aditzera ematen dizkiguten honako esaldi hauek irakurtzen ditugu:

- *'Ez dago belarri ona baino gramatika hoberik'*.
- *'Oraindik egiteko dago euskal prosa. Eta hori ez da egingo arauen eta gramatikaren bidetik'*.
- *'Gramatikak ez du agintzen galdegaia aditzaren aurrean ipini behar denik'*.

Bestalde Euskaltzaindiaren Jagon Sailak uste izan du ez zela nahiko aurkezten hutsa. Beharrezkotzat jo izan du, esan bezala, liburu honetan proposatzen den estratergiari buruzko gogoeta egitea. Eta horrela egin du, Donostian, Euskaltzaindiaren egoitza berrian (Luis Villasante Euskararen Ikergunean). Beharbada, egitarau beteegia goiz batez aztertzeko.

Pello Esnal, Corpus batzordeko kideak liburuaren - *'Hitz-ordena. Erabilera estratergikoak'*- aurkezpena egin zigun. Tresneria berriek ematen dituzten baliabideak erabiliz oso aurkezpen ederra eskaini zigun. Jarraian, Xabier Mendiguren Bereziartu jaunak, Corpus batzordeko kideak, *'Mende erdi batez euskalgintzan'* lana opatu zigun.

Txosten laburrago batzuk ere izan ziren. Horrela, Andre Urrutia, Corpus batzordeko kideak *'Performatibo juridikoak euskaraz: estratergiatarako abiaburuak'* lana aurkeztu zigun. Eta Igone Etxebarria, Corpus batzordeko kideak *'Hizkuntzaren transmisioa edo hizkuntza transmisorako bitarteko'* izenburua zuen lana.

Jardunaldi horretan izan zen, baita ere, mahai-inguru interesgarri bat ere, *'Hitz-ordena: erabilera estratergikoa. Zenbait ikuspegi'* gaiari buruzkoa. Parte hartzaileak eskarmentu handiko hiru itzultzaile: Jexux Mari Agirre, Eusko Legebiltzarrekoa, Karlos del Olmo Donostiako udalekoa eta Xabier Aristegieta, Nafarroako Parlamentukoa.

Parte hartzaile guzti horien lanak Euskaltzaindiko Web orrian argitaratu direnez, jarraian, liburutik bertatik jasotako atal inte-

resgarri batzuk jarri nahi dizkizuet aurrez aurre, lan interesgarri honen nondik norakoen berri orokorra izan dezazuen.

Dena den beste ezeren gainera nabarmendu nahi nituzke Pello Esnal jaunak liburu honen EGITASMOAK aurkezterakoan *Arantzazuko txostena oinarri* azpigituluan eskaintzen dizkigun datuak. Bertan argi eta garbi ageri zaigu hitz-ordenaren arazo hau ez dugula gaur goizekoa. Merezi du arretaz irakurtzea.

Nire aurkezpen hau amaitzeko, biderik argiena liburuan bertan eskaintzen zaizkigun atal batzuk hemen biltzea iruditzen zait. Horrela, lehenengo Andres Urrutia jaunak egin duen aurkezpena eta gero Pello Esnalek eskaintzen dizkigun bi liburpen. Azkenik, amaitzeko, ekitaldia bukatzerakoan Pello Esnal jaunari egindako elkarrizketa interesgarria.

AURKEZPENA: Estrategiaz, bigarrean ere (Andres Urrutia)

Hona hemen Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa, irakurlearen eskura datorren argitalpena, aurretiaz ezagutzen duen Testu-antolatzailea. Erabilera estrategikoa (2008) liburuaren hari beretik.

Hark argia ikusi zuen Pello Esnalek gidaturiko esku irmoz, eta bertan eman zen Euskaltzaindiaren Jagon Saileko Corpus batzordearen abalegina. Abaleginak abalegin, ordukoa arrakastatsu eta esanguratsu gertatu bazen, ez dugu gutxiago espero emaitza berri bonetatik.

Izan ere, estrategia aldarrikatzen zen orduko hartan eta estrategia aldarrikatu behar da, beste behin ere, euskararen esparruan. Estrategia horrek abalbidetzen du, besteak beste, hizkuntza-akademiari dagokion normatibizazio-lana zin-zinezko normalizazio-ekina biburtzea.

Zabaltzen den ber, euskararen mundua gero eta aberatsagoa da. Aberastasunean, bala ere, mota eta alde asko dira. Horien artean, malgutasunarena, hizkuntzaren erabilera ida-

tzi zein abozkoetan. Hainbatek bizi dituzten kezkak, egunero-koak ez ezik, hats luzeago eta sakonagokoak dira, horretan barneraturik baitago euskararen etorkizuna.

Hamaikatxo konponbide eskaintzen dira nonahi egoera honi aurre egiteko. Urliak hiztegia aipatzen badu, sandiak gramatika ekarriko du ezinbestekotasunez jantzia, eta berendiak, azkenean, aurreko horiek bazter utzi eta eskainiko dizkigu bere-bereak dituen konponbide eta irteera ia mirakuluzkoak.

Beude. Euskaltzaindiaren Corpus batzordeak, begi bistakoa denez, osterantzeko lana aukeratu du. Lan nekezagoa, egiantan, baina arnasa osokoa, bateratu nahi izan dituelako euskararen batasuna eta eguneroko erabilera duin eta gozoa.

*Behinola ondutako euskararen batasuna, askoren ustez, zerbait egina da eta, nonbait, betiko finkatua, bizkuntzak aldaezinak balira bezalaxe. Euskaltzaindiaren Corpus batzordeak, aitzitik, euskararen batasuna bestela ikusten du. Hain zuzen ere, etengabeko ibilian dabilen bizkuntzaren barnean. Oinarriak jarri baziren ere, oraintxe ari da mamitzen eta gauzatzen oinarrioren garatzea eta egiaztatzea, oinarri haiek uneoro ezartzen baitira, gizarte garaikide batek dituen bizkuntza-*eskakizunak aintzat hartu eta horiexei erantzun aproposak eman behar zaizkienean.**

Testu-antolatzaileak, beraz, lehena; hitz-ordena, aldiz, oraingoa. Bi-biotan, hala ere, erabilera estrategikoa, estrategia horretan baitago gakoa, oraingo eta geroko euskara moldatzeko.

Estrategiari emana, aipagarria da Pello Esnal Corpus batzordekidearen lan eskerga. Bera izan dugu gainontzekook benazko zirikatzaile eta bultzatzaile. Berak garraiatu ditu hainbat testu, sailkatu, bilbatu eta bizkarrezurra eman. Bilbadura horretan batzordekideok gogotsu egin ditugu geure

ekarpenak, urratu baino, jorratu eta osotu egin dutenak tesuaren irrada bizia.

Hortaz, estrategia, bigarrenean ere. Behin egin da, birritan dibardugu, hirugarrenean ere arituko garelako esperantzan. Horixe berori nabi du Euskaltzaindiak, eta horretan ari da. (Andres Urrutia, euskaltzainburua)

SARRERA (Pello Esnal)

Duela hiru urte, 2008ko irailean, plazaratu zuen Euskaltzaindiak 'Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa' liburua, Jagon Saileko Corpus Batzorde honek mamitu eta ondua (Corpus Batzordea, 2008). Haren harian, eta hura bultzatu zuen egitasmoaren baitan, dator oraingo 'Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa' hau.

TAE (Testu-antolatzaileak: erabilera estrategikoa)

Lau ezaugarri nagusi zituen Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa (TAE) lanak.

Hasteko, testu-osagaietako bat izan zuen langai: testu-antolatzaileak (Corpus Batzordea, 2008: 30-40). Testu-antolatzaileak, zabal ulertuta, ikuspegi gramatikal soila gaindituz.

Baina testu-antolatzaileak, langai soilik ez ezik, bitarteko ere izan genituen TAE liburuan. Izan ere, arreta berezia eskaini genion strategiak –eta gaitasun estrategikoa– lantzeari, galdera bat gidari: nola erabili testu-antolatzaileak modu estrategikoan, bai eguneroko ekintza komunikatiboak gauzatzeko, bai euskal prosa eguneratzeko (Corpus Batzordea, 2008: 41-48). Horixe zen gure lanaren bigarren ezaugarria eta, aldi berean, ezaugarri erabakigarria.

Izan da, ezaugarri horretaz ohartu ezean, bide erdian geratu den irakurlerik, testu-antolatzaileen sarean kateatuta. Horrek berriro gogorarazi digu zein nekeza gertatzen zaigun ikuspegi gramatikal soila gainditu eta ikuspegi estrategikoaz (eta, oro har, komunikatiboaz) jabetzea.

Hirugarren ezaugarria, berriz, lanaren izaera praktikoa da. Nabiz eta ezinbestekotzat jo teoria, ez genuen horretara mugatu nahi izan. Are gehiago, erabakiak hartuz ikasten baita erabakiak hartzen (eta, hain zuzen, horixe da gaitasun estrategikoa: erabakiak hartzen jakitea), behin eta berriro jo genuen benetako testuetara eta aldez eta moldez baliatu genituen adibideak eta egin genituen zenbait ariketa. Alderdi praktikoa honek hartu zituen liburuaren hirugarren eta laugarren kapitulu osoak (Corpus Batzordea, 2008: 49-93).

Izango da teorialatik abiatu eta praktika ikasten hasiko denik; baina, azken batean, praktikatuz ikasiko du praktika; are gehiago, praktikak eramango du teoria hobeto ulertzera.

Azkenik, eta hau da laugarren ezaugarria, lan iradokigarria eta irekia egin nahi izan genuen. Ez zen gure asmoa dena esana eta zehaztua uztea. Irakurlearen esku utzi genuen guk esana probatu eta frogatzea, osatu eta gozatzea.

(...) Lehenengo hartan bezala, aparteko garrantzia aitortzen diogu praktikari eta toki handia eskaintzen adibide eta ariketei, hirugarren kapitulutik aurrera eta, batez ere, azken bietan. Izango da teoria gehiago eta azalpen beteagoak nahi eta eskertuko lituzkeenik. Baina ez dugu beharrezkotzat jo horietan luzatzea; hemen, behintzat. Harrigarria gertatuko zaio gure jokabidea bati baino gehiagori, kontuan hartuta, esaterako, zenbat denbora, arreta eta orrialde eskaini zaizkion gure artean galdegaiaren arazoari. Denborak esango digu asmatu dugun ala ez.

Lau atal nagusitan banatu dugu lana, aurretik Aurkezpena eta Sarrera dituztela, eta atzetik Bibliografia. Atal bakoi-tzak, berriz, bi edo hiru kapitulu ditu; guztira, bederatzia. Lehenengo atalean, gure egitasmoaren berri ematen dugu, oinarri hartuta Koldo Mitxelena Arantzazuko biltzarrerako 1968an prestatu zuen txostena (1. kapitulua); eta gogoratuz Iparraldeko eta Hegoaldeko tradizioen baitan mugitzen garela (2. kapi-

tulua). Bigarren atalean, hitz-ordenaren biru elementu ditugu langai: testu-antolatzaileak, TAEE liburuan egindakoa laburbilduz (3. kapitulua), mintzagaia eta galdegaiak (4. kapitulua) eta erlatiboak esaldiak (5. kapitulua). Hirugarren atalean, bi hitz-ordena nagusiak jorratuko ditugu, soil-soil bada ere: Subjektua, Objektua, Aditza (6. kapitulua) eta Subjektua, Aditza, Objektua (7. kapitulua). Laugarren atalean, azkenik, aurrekoetan egin laburbilduz, beren osotasunean ikusten saiatuko gara bai testua (8. kapitulua), bai hitz-ordena bera (9. kapitulua), aurreko kapituluetan erabilitako adibideak berriro ere erabiliz eta adibide berriak baliatuz.

Azken batean, bost irizpidetan oinarri gaitzke euskarazko hitz-ordena landu eta bideratzeko.

Bat. Askotan, gramatikara jotzen dugu zein hitz-ordena erabili jakin nabian. Baina gramatikak, berez, oso arau gutxi eman diezazkiguke horretan ere. Aurreratu dugunez, estrategia egokiek lagunduko digute, gure ustez, hitz-ordenaren arazoa konpontzen.

Bi. Hegoaldean behintzat, galdegaiaren legea erabili ohi da hitz-ordena erabakitzeko orduan. Eta horri jarraiki eratu da, azken ehun urteotan, prosa-tradizio jakin bat. Eta arrakasta izan du didaktikan ere. Dena den, lorpenak lorpen, komeni da gauzak argitzea. Batetik, gogoratzea zer den berez galdegaiak. Bestetik, kontuan izatea galdegaiak ez duela zertan, derrigorean, hitz-ordena baldintzatu behar, nabiz eta lagungarri gerta dakigun.

Hiru. Galdegaiak eta iruzkinak gain, badaude beste zenbait elementu hitz-ordena ontzean kontuan hartu beharrekoak; hara nola, testu-antolatzaileak, mintzagaia eta aditza.

Lau. Aditza dela-eta, bi hitz-ordena aipatu ohi ditugu euskaraz: SOA (Subjektua, Objektua, Aditza) eta SAO (Subjektua, Aditza, Objektua). Biak dira gramatikalak eta biak kontuan izan eta erabili dituzte idazle eta hizlari onek.

Bost. Praktikan, gauzak askotan errazagoak izan obi dira. Tradizioak urratuak eta eginak ditu bideak. Eta guk, jakinararen gainean ala ez, tradizioaren baitan jokatu obi dugu. Euskararen kasuan, bi tradizioz hitz egin beharrean gara. Eta, gure ustez, gaur egun eskaintzen diogun baino arreta handiagoa merezi du Iparraldekoak, eta abalegin berezia egin beharko genuke indarberritzeko.

Horiek horrela, aurreko lana baino iradokigarriagoa eta irekiagoa atera zaigu oraingo hau. Zabalik uzten dugu, irakurlearen galdera eta ekarpenen zain. Eta, batez ere, zabalik uzten dugu, irakurleak berak bere bidea egin dezan. Norberak bilatu behar baitu nola urratu eta egin bere bidea: nola eskuratu apurka-apurka gaitasun komunikatiboa eta nola erantzun ahoz nahiz idatziz euskaldunon arteko komunikazio-beharrei.

Liburu honek, kapituluz kapitulu, gonbidapena izan nahi luke, gutako bakoitzak geure egitekoetan gaitasun estrategikoa landu dezagun, erabakiz erabaki, tradizioaren harian, gainerrako hitzuneekin batera.

Azkenik, obar bat egin nahi dugu, aurreko lanean bezala, erabili ditugun adibide eta pasarteei buruz. Batzuetan, eredu direlako hautatu ditugu; bestetan, hobe daitezkeelako. Hauek aukeratzean, ez da gure asmoa izan inoren lanik gutxiestea; alderantziz baizik. Estimatzun ditugulako erabili ditugu, nahiz eta batzuetan zer hobetua baduten; gure iritziz, behintzat. Izan da zorrotz hartu dugun testurik ere. Baina, azken batean, erabili abal izateko plazaratzen dira; eta ez da txikia ikasteko ematen diguten aukera. Tarteka, jatorrizko testu batzuk zertxobait ukitu ere egin ditugu, gaurko ortografia-araue-tara egokituz-eta.

Besterik ez. Asmatuko abal dugu, apurka-apurka, euskararen hitz-ordena ere lantzen, aurretik asmatu dutenen eskutik eta harian! (Pello Esnal)

Oso ongi egituratuta dago liburua eta hainbat gauza interesgarri eskaintzen dizkigu. Idazterakoan nahiz itzulpenak egi-terakoan zer-nolako estrategiak erabili behar ditugun aztertzer- a bultzatzen gaitu. Bertan, hitzez hitz hona ekarri dugun sarrer- an aipatzen den bezala, gure artean sarritan gogoeta-gai izan ditugun honako hauek ageri zaizkigu hainbat adibide erantsiz azalduta: *Testu-antolatzailek; Mintzagaia eta galdegaia; Erlati- bozko esaldiak; SOA /SAO aukerak; Hitz-ordena, osotasunean hartuta.*

Liburu eder horrek hainbat aukera eskaintzen dizkio alor hau sakondu nahi duenari, adibide multzo handia eta biblio- grafia zabala jasoz. Eskerrak zor dizkiogu Euskaltzaindiari, bes- te behin urrats eder bat eman eta halako altxor txikia eskaini digulako.

Amaitzeko hona hemen Pello Esnal jaunari ekitaldiaren bu- kaeran eginiko elkarrizketa:

LAGUN BATEKIN KALEAN IZANDAKO HIZKETA

–Jardunaldi arrakastatsuak atzokoak...

–Hasteko, harrituta gelditu ginen ikustean zenbat lagunek eman zuten parte hartzeko izena: laurogeitik gora. Ez genuen horrenbeste espero. Beharra eta gosea dagoen seinale. Gero, jardunaldietan, behin eta berriro entzun genituen hitz berak: bazela ordua Euskaltzaindiak hitz-ordenaren gaiari beltzeko; eta behin eta berriro eskerrak eman zizkiguten. Eta batek bai- no gebiagok aitortu zuen kontsolagarri zitzaiola entzutea zer- nolako azaroak dituen bakoitzak euskaraz idazteko eta ira- kurtzeko...

–Askoren gaitza, izurritea.

–Baina, batez ere, egia berdaderoa. Askotan, lotsa ematen digu geure ezinak eta mugak aitortzea. Eta, alde horretatik, te- rapia polita izan ziren jardunaldiak.

–Baina ez zitzaizuen erraza izango, noski, bitz-ordena gaiari aurre egitea.

–Askotan, gaiari nondik heltzen zaion, hortxe egoten da giltza. Izan daiteke gaia bera zaila eta korapilatsua, baina nabikoa izaten da hari-mutur egokia aurkitzea, handik tiraka mataza askatzeko; edo askatzen hasteko, behintzat.

–Kasu honetan, estrategia izan da giltza. Azalduko bitz gutxitan zer ulertzen duzuen estrategiaz?

–Behin arau gramatikalak bete ondoren, beste guztia da askatasunaren (eta erantzukizunaren) eremua. Pilota-jokoan bezala: behin arau gutxi batzuk bete ondoren, pilotariak nahi duena egin lezake pilotarekin.

–Arau gutxi batzuk...

–Behin eta berriro gogoratzen ari gara. Eta hortxe ipini dugu liburua azal-begalean: “Euskal gramatikari buruz, bi uste oker bezain gaizto daude euskaldunon artean zabaldua: batetik, arautzen duena baino gehiago arautzen duela eta, bestetik, nabikoa dela arau gramatikalak betetzea”. Erraza ematen du horretaz jabetzea, baina uste baino zailagoa gertatzen ari da.

–Aurreiritziak, urte askoan pilatutako zama. Baina, pixkana-pixkana...

–Bai. Jardunaldietan, beste irudi eta adibide politik azaldu ziren. Jose Ramon Etxebarriak, esaterako, formula eta formula hitzez emateko modua bereizi zituen; esanez, alegia, bat eta bakarra izaten dela formula, baina mila modu daudela formula hori hitzez azaltzeko. Eta hizkuntzaren erabileran ere berdin gertatzen dela. Kontua dela zeresana argi izatea. Hori hala bada, aurkituko dugula hori hitzez emateko modua. Karlos del Olmok, berriz, beharkizuna eta aukera hitzak erabili zituen, gure arau eta estrategia hitzen harian. Hau da, hizkuntzak berak jartzen dizkigula beharkizunak eta mugak, baina

muga horien barruan ugariak izaten direla aukerak. Karlosek, gainera, beste kontu funtsezko bat ere aipatu zuen: negoziazioa. Azken batean, negoziazioa dela hitzez komunikatzea.

–Beraz...

–Beraz, kontua ez dela balizko arauak betetzea, edo euskara beste hizkuntzak ez bezalakoa dela erakustea...; komunikatzea baizik. Mila aldiz entzundako hitzak, baina norberak bereganatu behar dituenak. Horren harian, hau ere badator liburuaaren hegala-azalean: “Hain zuzen, erabakiak hartzera bultzatu nahi zaitugu; erabakiak hartzeko gaitasuna lantzeraz; hitz batean, zeure buruaren jabe izatera euskararen erabileran ere”.

*Berriemailea
Patxi Uribarren Leturiaga*